



Bilboko Portuko Agintaritzak COVID-19aren krisia dela eta, neurri ekonomiko sorta bat onartu du portuko enpresa emakidadun eta hornitzaileei zuzenduta

COVID-19k eragindako krisia dela eta, Bilboko Portuko Agintaritzak ekonomia eta antolaketari buruzko neurri batzuk hartu ditu, Bilboko Portuan kokatuta dauden enpresei eta erakundeko hornitzaileei zuzenduta.

Alde batetik, Portuan dauden enpresei bi hilabete atzeratuko die okupazio eta aktibitateagatiko tasen sei hileko kitapenen fakturazioa, eta hilabete bat, okupazio eta aktibitateagatiko tasen hileko kitapenak. Neurri honekin, gehinezko epeak legez baimendutako mugetara luzatuko ditu. Bestalde, frogatzen denean emakidan konprometitutako gutxienezko aktibitatean gerta litezkeen ez betetzeak Covid-19en eraginez gertatu direla, 2020an ez zaie zigorrik jarriko ez eta beste inolako ondorioz ere.

Gainera, hornitzaileei laguntzeko, fakturak, onartzen diren egun berean ordainduko dira, 30 eguneko epe-mugari itxaron gabe.

Bezero emakidadunei kobrantza atzeratuz eta hornitzaileei ordainketa aurreratuz, Portuko Agintaritzak portuko enpresei lagundu nahi die, koronabirusa dela eta izan ditzaketen diruzaintza arazo edo tentsioei aurre egin diezaieten.

Paraleloki, Estatuko Portuei proposamen osagarri batzuk igorri dizkio aztertu eta aplikatu ditzaizkien. Euren artean, deskontuak tasetan, gerorapenak eta beste zerga-neurri batzuk daude, eta euren helburua, portuko enpresen posizioa hobetzea da baina aplikatu ahal izateko legezko aldaketak egin beharko lituzkete.

Barne-neurriak

Era berean, Bilboko Portuko Agintaritzak aukerako plana eta barne antolakuntza neurriak onartu ditu, bere profesionalen osasuna babesteko eta bezeroei ematen zaien zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko. Bakoitzak egin beharreko lanari egokituta eman zaion informazioa eta kontagioak prebenitzeko higie-neurriez gain, bertan behera utzi dira porturako bisitak eta prestakuntza ikastaroak, eta gomendatzen da bilera, bidai, azoka edo kongresuetara ez joatea, funtsezko zerbitzuak emateko ezinbestekoak ez diren guztietan. Zentzu honetan, beren lanagatik ahal duten langileei telelana eskaini



zaie; eta ordutegi malgua ezarri da ere kasu bakoitzaren arabera, ikastetxeak ixteak familian eragindako aparteko egorerari aurre egin ahal izateko.